



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	AIXERROTA BHI					KODEA: 015109	2015-16		
ARLOA	GIZARTE ZIENTZIAK GEIGRAFIA ETA HISTORIA					DATA	22/10/15		
MAILA	DBH 1	X	DBH 2	DBH 3	DBH 3	DBHO 1	DBHO 2		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	<ul style="list-style-type: none"> - Ingurune fisikoaren oinarrizko elementua zenbait eskalatan ezagutzea, kokatzea eta aztertzea. - Europako eta munduko geografia aniztasunaren oinarrizko ezaugarriak ezagutzea. - Talde lanak egitea, talde laneko teknikak eskuratzea. - Geografiaren, historiaren eta oro har gizarte zientzien ezaugarriak ikertzeko tresnak, teknikak eta oinarrizko prozedurak aplikatzea. - Gizartearen historiako gertaera historiko eta prozesu garrantzitsuenak ezagutzea eta denboran eta espazioan kokatzea. - Historiaren ikuspegi zabala eta kritikoa eskuratzea. - Euskal Herriarentzat garrantzitsua izandako gertaera historikoen prozesua denboran eta espazioan ezagutzea eta kokatzea. - Euskal Herriko eta Euskal Herritik kanpoko arte adierazpen garrantzitsuenak ezagutzea eta balioestea. - Kultura aniztasunari balio ematea, herrien eta norbanakoaren nortasun eskubidetzat hartuz, gainerako kulturekiko tolerantziatzko eta errespetuzko jardura izanda. - Honako kategoria hauek antolatzea eta erabiltzea: denbora orientazioa, denboraren neurria... - Hainbat informazio zorrotasunez bilatzea, aukeratzea eta erlazionatzea. - Edukiak nork bere erara eta sormenez adieraztea eta komunikatzea eta norbere ikaskuntza prozesuari buruz hausnartua.

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	-LURRAREN ADIERAZPEN GRAFIKOA -LURREKO ERLIEBEA -URAK -EGURALDIA ETA KLIMA -LURREKO PAISAIK	--KONTINENTEAK: Asia, Amerika, Afrika eta Ozeania EUROPAKO ETA ESPAINIAKO PAISAIK -HISTORIAURREA -IBAIETAKO ZIBILIZAZIOAK: MESOPOTAMIA ETA EGIPTO	- GREZIAKO ZIBILIZAZIOA - ERROMATARREN HISTORIA -ERROMATAR HISPANIA

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
	<ul style="list-style-type: none"> • Eduki berriak lantzeko irakaslearen informazioa eta azalpenak izango ditu ikasleak. • Oinarrizko gaitasunak garatzeko prestatutako jarduerak landuko ditugu: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasten ikastekoa, eskemak eta kontzeptu mapa bitartez - Matematika,(eskalak, ordu eremu edo koordinatuak, ardatz kronologikoak ...) - Hizkuntza komunikazioa, (lanen aurkezpenak...) - Informazioaren trataerakoa, (kontzeptuen kontsulta eta garrantzitsuenak aukeratu...) - Gizarte eta hiritar gaitasuna, (taldeko lanean hitza eta txandak errespetatu, besteen diskurtsoa entzun, lana garaiz prestatu...)



- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna. (erreparorako ariketak eta bakarkako lana)

4	BALIABIDEAK
	<ul style="list-style-type: none"> • Testu liburua • Kontsultarako materialak : entziklopediak, hiztegiak, atlasak... • Laburpenak, kontzeptu mapak, eskemak. • Bideoak. • Internet. • Multimedia: Santillana-Egiten Jakin argitaletxeak dituen baliabideak: CDak eta pelikulak S.M. argitaletxeak dituen baliabideak Sites: gizarteziientziakDBHn.sites.com
	<p>TESTU LIBURUA: Gizarte Zientziak 1 Geografia eta Historia</p> <p>Testu liburua oinarritzko baliabidetzat hartzen dugu. Bertan agertzen zaigun informazioetik abiatuko gara edozein gai lantzeko. Informazioa jarduera ezberdinez landuko da eta zabaltzeko aukera izango dugu beste baliabideak erabiliz.</p> <p style="text-align: center;">Argitaletxea: Egiten Jakin Santillana</p>

5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
	<ul style="list-style-type: none"> - Ea bereizten eta ezagutzen ditu Lurreko biziari mesede egiten dioten baldintzak eta Lurraren forma, neurriak eta mugimenduak. - Ea definitzen eta bereizten ditu errotazio-mugimendua (egunaren eta gauaren txandaketa eta puntu kardinalak) eta translazio-mugimendua (urtaroak) - Ea dakien zer diren koordenatu geografikoak, eta lotzen ditu lurrazaleko puntu desberdinetako ordu-eremuekin. - Ea ezagutzen dituen mapen ezaugarriak eta motak, eta aztertzen eta ebatzen ditu eskalarekin, proiektzioekin eta mapekin lotutako adibide zehatzak. - Ea ezartzen dituen Lurreko krokis batean meridiano eta paralelo nagusiak - Ea dokumentu grafiko batetik abiatuz, kontzeptuen definizioak egiten dituen. - Ea azaltzen dituen Lurreko geruzak (litosfera, hidrosfera, atmosfera eta biosfera) eta ulertzen dituen plaken tektonikaren teoria. - Ea ezagutzen eta lekutzen dituen Lurreko kontinenteak eta ozeanoak, erliebe kontinentalaren forma sinpleak eta erliebe multzo handiak, kostako erliebearen eta itsaspeko erliebearen formak eta kontinente guztietako ezaugarri nagusiak eta erliebearen unitate handiak, mugak, kostak, uharteak eta abar... Espainiako eta Euskal Herrikoa barne. - Ea identifikatzen dituen Lurreko erliebea aldatzen duten prozesuak eta horien eragileak eta dakien zein diren hondamendi naturalen mota handiak, lotzen barruko edo kanpoko jatorriarekin. - Ea identifikatzen dituen atmosferak dituen oinarritzko geruzak eta bere garrantzia. - Ea definitzen ditu meteorologiarekin lotutako kontzeptuak, esaterako eguraldia, aire-masak eta zirkulazio orokor atmosferikoa. - Ea ulertzen ditu presio atmosferikoa eta horren faktoreak, eta erraz erabiltzen ditu haizeari lotutako kontzeptu geografikoak - Ea identifikatzen ditu prezipitazioekin (uholdeak eta lehorteak) eta haizearekin (zikloi tropikalak eta tornadoak) lotutako arriskuak, klima-alde nagusiak eta gutxi gorabehera lekutzen ditu munduko mapan, Lurreko landare-formazio nagusiak, eta definitzen ditu fauna eta lurzoru kontzeptuak. - Ea definitzen du <i>inguru natural</i> kontzeptua eta interpretatzen ditu giza jarduera baldintzatzen duten faktoreen adibideak eta eraldaketa-adibideak. - Ea identifikatzen ditu inguru desberdinetako ezaugarri nagusiak eta biztanleriarekin eta jarduera ekonomiko tradizional eta modernorekin lotuta dauden ondorioak.



- Ea identifikatzen dituen Espainiako paisaiak eta Euskal Herrikoak, eta lekutzen ditu mapan inguru naturalak
- Ea dakien zeintzuk diren Historiako etapa handiak (Historiaurrea eta Historia) eta horietako bakoitzaren etapak eta iturriak.
- Ea dakien eboluzioaren teoriaren arabera, zein diren hominidoen ezaugarri bereziak, eta aipatzen ditu hominizazio-prozesuaren etapak eta prozesuko etapa bakoitzaren adibide fosilak.
- Ea bereizten dituen Paleolitoko etapak, eta lotzen ditu bizimoduekin eta arte adierazpen esanguratsuekin.
- Ea dakien azaltzen Neolitoko iraultzaren jatorria, irismena eta ondorioak, eta zein diren Metalen Aroko aldiak, bai eta etapa historiko horretan bizimoduen eta artean izandako aldaketen garrantzia ere.
- Ea dakien Ibai-zibilizazio nagusiak mapan ezarri, data jarri eta horien ezaugarri adierazgarri batzuk adierazten ditu.
- Ea lekutzen dituen denboran eta espazioan (ardatz kronologikoa) Mesopotamia eta Egipto
- Ea dakizkien zein ziren Mesopotamiako eta Egiptoko politika, gizarte eta ekonomiako antolaketak eta zibilizazio hauek izandako garrantzia.
- Ea identifikatzen dituen Mesopotamiako eta Egiptoko kultura-adierazpen nagusiak.
- Ea identifikatzen duen zibilizazio historikoek okupatutako espazioa gaur egun.
- Ea dakien inguruan zer leku duten Grezia eta Erroma, eta aurkitzen ditu espazioan eskualde eta polis esanguratsuak
- Ea ordenan jartzen ditu ardatz kronologikoan Greziako eta Erromako historiaren oinarritzko etapak, eta horietako bakoitza gertaera esanguratsuekin lotzen du.
- Ea dakizkien nolakoak ziren Antzinako Greziako eta Erromako baliabide ekonomikoak, eguneroko bizimodua, gizarte antolaketa, politika sistema, erlijioarekin eta kultura, forma artistikoak, baita forma horiek orain ere irauten dutela ere, kultura- eta arte-ondarea ezagutu, horren garrantzia aintzat hartu eta artelan esanguratsuen iruzkina egitea.
- Ea ezagutzen dituen Erromatarrek egindako Hispaniaren konkistaren ezaugarriak eta erromanizazioa, eta bereizten dituen administrazio, ekonomia eta gizarte hispano-erromatarren ezaugarri nagusiak
- Ea ezagutzen dituen Euskal Herriaren konkistaren eta erromanizazioaren ezaugarriak.

Kontzeptuak, proba idatzien bidez ebaluatuko dira.

Prozedurak, proben bidez eta puntualki egingo diren ariketen bidez ebaluatuko dira.

Ebaluazio bakoitzean lan monografiko bat egin beharko dute, beraien ikaskideen aurreko aurkezpenari garrantzi handia emango zaio.

Jarrera, norberaren lana, egunerakoa, aditasuna, parte hartzea, etxerako lanak, irakaslearekiko zein ikasleekiko errespetua.

Lanak ezarritako epean egin beharko dira.

Kalifikazioen balio portzentuala:

Kontzeptuak: %70

Prozedurak: %20

Jarrera: % 10

Hirugarren ebaluazioaren bukaeran proba orokorra egingo da. Honetan gainditu gabe zerbait daukan ikasleak aprobatzeko aukera izango du.

Ikasturtea gainditzeko ebaluazio guztiak gaindituta egon beharko dira.



Ebaluazio bakoitzean gutxienez bi proba idatzia egingo dira.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

Ikasle batek ez badu gainditzen ebaluazio bat lan bat egingo du. Lan horretan ebaluazioan zehar landutako jarduera ezberdinak burutuko ditu. Osorik eta ondo eginik emango dio irakasleari.

7

CURRICULUMEAN SARTZEKO EGOKITZEA

Hainbat ikaslek mota desberdinetako diagnostikoa (dislexia, TDA ...) ekartzen dute .

Ikasle hauei egokitzapena egingo zaie ondoko arlo hauekin: materialak, metodologia eta ebaluazioa.

1. **MATERIALA:** IKT-ak erabiltzea, ordenagailuaren erabilpena bultzatzea, internerteko orriak gomendatzea,
2. **METODOLOGIA:** eskemak edo gidoiak egiteko txantiloak eman. Denbora malgutasunez erabiltzea, hau da denbora gehiago ematea, ahozko eta ikusizko informazioa ematea,
3. **EBALUAZIOA:**
 - Ahozko azterketak (grabatuta geratuko dira),
 - Aukera anitzeko galderak,
 - Egia ala gezurra motatako azterketak,
 - Erantzun laburreko galderak ..
 - Denbora luzatuko zaie
 - Erantzunen edukia balioestea izango da gainditzeko irizpide nagusia.